



## BALIOEN PROSAMENA

FESTY-DRIVERS festibaletan pertsonen garraio zerbitzua eskaintzen duen enpresa bat da. Gure enpresaren izenaren jatorria zuzena da, hau da, festy: jaialdietan aritzen garelako eta drivers: gidariak garelako. Gure izena ingelesez dago idatzita jaialdi hauek mundu osoan zehar ospatuak eta ezagunak direlako.

Gure ideia jaialdiaren arazo nagusienetako baten ondorio izan da. Eremua handia da, eta bezeroek bertatik ibili nahi badute gure zerbitzuak erabiliz bidea erraztu diezaiekegu. Tomorrowland jaialdian ez da egon gu bezalako zerbitzurik, honez gain, gure irabazien ehuneko bat donatu egingo dugu. Gainera, eskeiniko ditugun golf autoak elektrikoak izango dira, beraz, enpresak zerbitzu jasagarria sustatzen du. Hori da desberdintzen gaituena.

Bestalde, gure helburu nagusienetako, irabazitako diruaren zati %66 "Aladina" elkarteari donatzea da. Gure enpresako kideok beti egin izan dugu lan Aladina elkartearekin, garrantzitsua iruditzen baitzaigu, minbizi honen inguruko ikerketetan laguntzea, haurren minbiziaren arrazoi nagusiak ez baitira ezagutzen. Helburu hau aurrera eramateko ondorengo ekintza proposatzea erabaki dugu.

Lehenik eta behin, ekainaren bukaera aldera ospatzen den Belgikako "Tomorrowland" jaialdiaren koordinatzaileekin harremanetan jarri gara eta bertan gure zerbitzua eskaintzeko aukera eman digute. Gure zerbitzua ondorengoan oinarritzen da; jaialdiko eremu desberdinetan 500 golf auto ezarriko ditugu bost/zazpi eserleku dituztenak. Jaialdian bertan, eremu bat dago egokitua bezeroak bertan gera daitezen. Ondorioz, eremu osoaren luzera bi zatitan banatzen da, kanpinarena 2,5km eta eszenatokiarena 1km. Hau ikusirik, golf-eko kotxe batzuk kanpalekuan ezarrita egongo dira, eta horiekin eszenatoki desberdinetara iritsi ahal izango dute, beste batzuk, aldiz, sakabanatuta egongo dira eszenatoki inguruetatik.

Azkenik, Bizum eta Paypal kontuak izango ditugu jendeak nahi duen diru kantitatea donatu dezan.